

Eztia nagusi, XVI. Erle Egunean

Kata gidatua, erakustaldia, lehiaketa, salmenta postuak... Eztia izango da aurten ere, nola ez, XVI. Erle Eguneko produktu izarra. Ezti lehiaketa ezaguna ere ospatuko da. Aurten sorpresak iragarri dituzte sari banaketan:

Azaroak 30, igandea

09:00-10:00 Ezti eta gozogintza lehiaketetarako jakiak aurkezteko tartea.

11:00-14:00 Erakusketa (erleak, eztia, ontziratze prozesua...), postuetako salmenta, txistulariak, marrazki lehiaketa, bideoak Sutejin.

10:30 Ezti Kata Gidatua eta eztia nola aterazen den erakustaldia.

12:30 Kizki lagunak: 400 lagun osatzeko erronka.

13:30 Erleak beraiek ekarritako sari banaketa (aurten sorpresa eta guzti):



Sari banaketa ikusgarria izan ohi da. Eguerdiko 13:30ean hasiko da.

- Ezti Lehiaketako irabazleak.

- Gozogintzako irabazleak.

- Marrazki Lehiaketako irabazleak.

- Ezti Lehiaketan irabazleak suertatzen diren eztekin, errifak salgai izango dira eta zozketa eguerdian egingo da.

14:30 Bazkaria Artzabal jate-

txean. Txartelak 25 eurotan frontoian izango dira salgai Erle Egunean.

Antolatzailea: Erle Lagunak.

Igandean, eguerdiko 12:00etan aurkeztuko dute Eragile Feminista izeneko taldea frontoian

Igande honetan, Erle Egunean aurkeztuko dute jendaurrean, Usurbilgo Eragile Feminista. Igande honetan, azaroaren 30ean beraz. Baina iragarritakoa baino ordubete lehenago; 12:00etan frontoian. Aurkezpenaz gain, elkarretaratzea deitu dute.

Pasa den astearte honetan bezala. Hitzaldi, tailer eta film emanaldi batez osaturiko ekimen sorta burutu da azken egunotan, asteartean, azaroaren 25ean, gogoan izan genuen Emakumeengana Indarkeriaren Kontrako Egunaren harira. Egun horretan bertan egitekoa zen hain zuzen elkarretaratzea,



"Indarkeria sinbolikoa eta mikromatxismoak" hitzaldian egina dago argazkia.

eta osoko bilkura onartzekoa zen gai honi loturiko mozioa. Zehaztasunon berri, datorren astekarian.

Azaroak 30, igandea: Erle Eguna

12:00 Usurbilgo Eragile Feministaren aurkezpena eta

elkarretaratzea frontoian, "Autodefentsa feministaz leher-tu!" aldarripean.

Abenduak 13, larunbata

Ondarrun, "Jostorratzak dantzan ditugu! Euskal Herriaren burujabetza feministarantz!" lemapean ospatuko diren Emakume Abertzaleon VI. Topaketa Feministak ekimenera joateko deia. Alternatiba eta trantsizio feministaren inguruko eztabaida. Umeak dituztenentzako oharra; haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

Antolatzailea: Usurbilgo Eragile Feminista.